

# LA AMENAZA

Exposición de fotografía



# MEHETXUA

Argazki erakusketa

Del 6 de julio al 1 de octubre de 2023

2023ko uztailaren 6tik urriaren 1era



CENTRO MEMORIAL DE LAS  
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO  
TERRORISMOAREN BIKTIMEN  
OROIMENERAKO ZENTROA

**EL CORREO**

## CRÉDITOS

Javier V. Calderón. Música y realización del video Memorial / El Correo.  
Estudios Durero. Digitalización, tratamiento e impresión de imágenes.  
Habemus Estudio. Diseño museográfico.  
Oketa. Producción y montaje de sala.  
Aritz Gorrotxategi. Traducción al euskera.  
José Luis Nocito. Fotografía y comisario de la exposición.

## KREDITUAK

Javier V. Calderón. Musika eta Memoriala / El Correo bideoa egitea.  
Estudios Durero. Irudiak digitalizatzea, tratatzea eta inprimatzea.  
Habemus Estudio. Diseinu museografikoa.  
Oketa. Ekoizpena eta aretoaren muntaia.  
Aritz Gorrotxategi. Euskarazko itzulpena.  
José Luis Nocito. Argazkigintza eta erakusketaren komisarioa.

## TEXTOS

Bernardo Atxaga  
Olatz Barriuso  
Antonio Basagoiti  
César Coca  
Fernando Iturribarría  
José Luis Nocito  
Kirmen Uribe

## TESTUAK

Bernardo Atxaga  
Olatz Barriuso  
Antonio Basagoiti  
César Coca  
Fernando Iturribarría  
José Luis Nocito  
Kirmen Uribe

Hay miedo a que estalle la bomba.  
Durante 2 horas y 30 minutos el centro de la  
ciudad se detiene.  
Historia en 12 fotos de José Luis Nocito.

Intento de atentado de ETA contra el edificio  
de la Bolsa de Bilbao, 04/03/2002.

Bonba lehertzeko beldurra dago.  
2 ordu eta 30 minutuz hiriari erdigunea  
gelditu egin da.  
Historia José Luis Nocitoren 12 argazkitan.

Bilboko La Bolsa eraikinaren kontrako  
ETAren atentatu saiakera, 2002/03/04.

# J.L. Nocito

pág. 6 or.

pág.  
9  
or.

pág. 10 or.

pág. 15 or.

pág. 17 or.

pág. 21 or.

pág. 24 or.

pág.27 or.

pág. 29 or.

pág. 33 or.

pág. 34 or.

pág.  
37  
or.

Bernardo Atxaga → pág. 7 or.

Olatz Barriuso → pág. 12 or.

Antonio Basagoiti → pág. 16 or.

César Coca → pág. 22 or.

Fernando Iturribarria → pág. 25 or.

José Luis Nocito → pág. 31 or.

Kirmen Uribe → pág. 35 or.



# Bernardo Atxaga

3 HORAS DEL 4 DE MARZO DE 2002

El presente todo lo destruye, y antes que nada el pasado, el paisaje que contiene nuestra vida anterior. A veces, cuando no culmina su tarea, lo desfigura y lo convierte en algo insustancial. ¿Qué hicimos de los treinta a los treinta y cinco años? ¿Qué pasó en la batalla de Machichaco? ¿Cómo era el rostro del camarero del bar donde, durante la época de estudiante, tomábamos café? Más en concreto, ahora que tengo delante las doce fotos que José Luis Nocito tomó en las calles de Bilbao el 4 de marzo de 2002: ¿Qué podría decir, por mí mismo, sobre lo ocurrido? Respondo rápido: nada. Miro en mis libretas de entonces. No estaba viviendo en el extranjero, ni de viaje. Debería acordarme de algo. Pero no. De no existir el reportaje —y, ahora, la exposición— aquellos 21 kilos de cloratita que ETA colocó en el centro de Bilbao no existirían para mí.

Me pregunto si, de haber explotado la bomba y haber provocado muertos, tendría algún recuerdo, una marca en la memoria que pudiera verbalizar, explicar, transmitir a otros, repetir aquí y allá. Tampoco estoy seguro de ello. No hace mucho, buscando en la red una información sobre la Margen Izquierda, me topé con la tragedia que el 23 de octubre de 1980 ocurrió en una escuela de Ortuella: una explosión de gas propano había acabado con la vida de una maestra, un maestro, la cocinera y además —¡qué brutal es a veces la muerte!— con la de 50 niños de entre 5 y 10 años. Me acordaba del hecho, y también, porque coincidió que aquel día estaba en la radio, del llanto de una locutora ante el micrófono, incapaz de articular una palabra y dar la noticia de lo sucedido. Pero no lo tenía presente. Era ya, en mi memoria, como una moneda enterrada y sin brillo.

Vuelvo a mirar las fotos de José Luis Nocito, y me fijo en la gente que escapa de la zona acordonada o espera sentada a

que la situación se aclare. Es probable que ellos sí se acuerden del suceso, igual que me acuerdo yo del atentado a Fernando Buesa: me encontraba aquel día, en aquel momento —con una bebé de pocos meses—, a cien metros de donde ocurrió la explosión. Pero incluso en estos casos, cuando el hecho adquiere carácter de símbolo, de recuerdo perenne, es imposible evitar el desgaste. O mejor, el trastoque. Así me ocurre a mí, al menos. Recuerdo con precisión que justo en el momento de aquel atentado empezó a llover; que un albañil subido a un andamio gritó: “¡Eso ha sido una bomba!; que una chica joven con la que me crucé diez minutos después me dijo al pasar: “Buesa hil dute”. Sin embargo, he tenido que hacer un esfuerzo para no olvidarme de que en el mismo atentado murió el ertzaina que le acompañaba. Aún más, he tenido que recurrir al ordenador para refrescar mi mente y saber su nombre: Jorge Díez Elorza. Si esto ocurre en un caso como el de Fernando Buesa, objeto de un documental y de un reconocimiento oficial y popular grande, qué no ocurrirá con otros similares. José Luis Nocito lo dice con rotundidad al comentar el tema de sus fotografías: “El tiempo se detiene, y después la vida sigue como si nada hubiese ocurrido”

Sí, la vida sigue y no parece que pueda ser de otra manera. Que lo haga destruyendo- como quien destruye cien plantas para desbrozar un bosque y abrir un camino— parece una necesidad nuclear de la vida misma, de nuestra existencia. Es evidente asimismo que hay en ello, en ese avance, una base cruel. Desde ese punto de vista, trabajos como el de José Luis Nocito sirven para aliviar el dolor de fondo, invencible, irremediable, que acompaña al olvido.

# Bernardo Atxaga

2002KO MARTXOAREN 4KO 3:00AK

Orainak oro suntsitzen du, eta ezer baino lehen iragana, gure aurreko bizitzak barne hartzen duen paisaia. Batzuetan, bere lana amaitzen ez duenean, desitxuratu egiten du, eta ganora gutxiko bihurtzen. Zer egin genuen hogeita hamar urtetik hogeita hamabostera bitartean? Zer gertatu zen Machichacoko guduan? Nolakoa zen ikasle garaian kafea hartzen genuen tabernako zerbitzariaren aurpegia? Zehatzago esanda, José Luis Nocitok 2002ko martxoaren 4an Bilboko kaleetan ateratako hamabi argazkiak aurrean ditudala: Zer esan nezake, neure kabuz, gertatutakoari buruz? Azkar erantzungo dut: ezer ez. Orduko nire libretetan begiratu dut. Ez nintzen atzerrian bizi, eta ez nenbilen bidaian ere. Zerbait gogoratu beharko nuke. Baina ez. Erreportajea — eta, orain, erakusketa — ez balego, ETAk Bilboko erdigunean jarri zituen 21 kilo kloratita horiek ez lirateke niretzat existituko.

Nire buruari galdetzen diot ea bomba lehertu eta hildakoak eragin izan balitu, oroitzapenen bat izango ote nukeen, memorian markaren bat, hitzez adierazteko, azaltzeko, besteei transmititzeko, han-hemenka errepikatuzko. Horretaz ere ez nago ziur. Duela ez asko, sarean Ezkerraldeari buruzko informazio bila nenbilela, 1980ko urriaren 23an Ortuellako eskola batean gertatutako tragediarekin egin nuen topo: propano gasaren leherketa batek maistra bat, maisu bat, sukaldaria eta, gainera — zein basatia den batzuetan heriotza! — 5 eta 10 urte bitarteko 50 haur hil zituen. Gogoratzen nintzen gertatutakoaz, eta baita ere, bat etorri zelako egun hartan irratan nengoela, esatari batek mikrofonoaren aurrean egindako negarraz, hitzik ahoskatu eta gertatutakoaren berri eman ezinik. Baina ez nuen gogoan. Jadanik, nire oroimenean, txanpon lurperatu eta distirarik gabea bezalakoa zen.

Berriro begiratzen diet José Luis Nocitoren argazkiei, eta hesitutako eremutik ihes egiten duten edo egoera argitu arte eserita itxaroten

duten pertsoneri erreparatzen diet. Litekeena da haiek gertakariaz oroitzea, ni Fernando Buesaren atentatuaz oroitzen naizen bezala: egun hartan, hilabete gutxiko haurtxo batekin nengoen, leherketa gertatu zen lekutik ehun metrora. Baina kasu hauetan ere, egitateak sinbolo, oroitzapen iraunkor izaera hartzen duenean, ezinezkoa da higadura saihestea. Edo, hobeto esanda, nahasmendua. Hala gertatzen zait niri behintzat. Zehatz-mehatz gogoratzen dut atentatua gertatu zen unean euria hasi zuela; aldamiio batera igotako igeltsero batek oihera egin zuela: “Hori bonba bat izan da!”; hamar minutu geroago berarekin gurutzatu nintzen neska gazte batek esan zidala: “Buesa hil dute”. Hala ere, ahalegin bat egin behar izan dut atentatu berean berarekin zihoan ertzaina hil zela ez ahazteko. Are gehiago, ordenagailura jo behar izan dut burua freskatzeko eta bere izena jakiteko: Jorge Díez Elorza. Hori gertatzen bada Fernando Buesaren kasuan, dokumental baten eta errekonozimendu ofizial eta herrikoi handi baten xede dena, zer ez da gertatuko antzeko beste batzuekin. José Luis Nocitok irmotasunez esaten du bere argazkien gaia komentatzean: “Denbora gelditu egiten da, eta gero bizitzak aurrera jarraitzen du ezer gertatu izan ez balitz bezala”.

Bai, bizitzak aurrera jarraitzen du, eta ez dirudi bestela izan daitekeenik. Suntsituz egitea —ehun landare suntsitzen dituenak bezala, baso bat soiltzeko eta bide bat irekitzeko — bizitzaren beraren, gure izatearen, behar nuklearra dirudi. Argi dago, halaber, aurrerapen horretan oinarri krudel bat dagoela. Ikuspuntu horretatik, José Luis Nocitoren bezalako lanek ahanzturarekin batera datorren sakoneko min menderaezin eta erremediorik gabea arintzeko balio dute.







# Olatz Barriuso

Corresponsal política de *El Correo*

## EL HARTAZGO

Al releer la crónica que escribí hace ya 21 años sobre el enésimo intento de ETA de aterrorizar y sojuzgar al pueblo que decía querer liberar, me llamaron especialmente la atención las palabras 'cloratita' y 'titadyne'. En concreto, lo rápido que había olvidado que hubo un tiempo en que manejar con soltura los nombres, la potencia y la letalidad de los explosivos era el 'abc' del plumilla vasco. Y recordé lo sencillo que resultó dejar de salpicar los textos con los métodos que ha alumbrado la mente humana para eliminar semejantes. Pero también lo natural que había sido echar los dientes como periodista entre cordones policiales, rastros de sangre en las aceras, paraguas volcados como metáfora de la ausencia sobrevenida, tanatorios, funerales, sirenas, cursillos de autoprotección, manifestaciones y contramanifestaciones, lluvia y lágrimas, muchas lágrimas.

Las fotografías son expresivas por lo cotidianas, por las bolsas de la compra, las mochilas de los estudiantes, el aire distraído de los jubilados, la prisa trajeada de los oficinistas. Sale un carrito de bebé y hasta un paquete de patatas. Nadie llora en esas fotos pero, incluso sin los verdugillos de los ertzainas, sin el aire compungido de los miembros de la Corporación municipal, es fácil ver que algo pasa. Que los ciudadanos que transitan por el centro de Bilbao en hora punta se han acostumbrado, como lo hice yo, a la amenaza permanente.

Pero no se han resignado. El gesto serio, los brazos cruzados, el hastío, la rabia. El hartazgo social que empujaría, menos de una década después, a que la cloratita, los nueve milímetros parabellum y los subfusiles UZI trufaran ya sólo las crónicas de los juicios a quienes los habían empuñado.

# Olatz Barriuso

*El Correoko berriemaile politikoa*

## BETEKADA

Duela 21 urte idatzi nuen kronika berrirakurtzean, ETak askatu nahi zuela zioen herria izutzeko eta astintzeko enegarren saiakerari buruzkoa, bereziki deigarriak iruditu zitzaizkidan 'kloratita' eta 'titadyne' hitzak. Hain zuzen ere, zein azkar ahaztu nuen garai batean lehergailuen izenak, indarra eta hilgarritasuna erraztasunez maneiatzea euskal kazetariaren "abc" a zela. Eta gogoratu nuen zeinen erraza izan zen giza gogamenak hurkoak ezabatzeko argitu dituen metodoekin testuak ez ziprztintzea. Baina era berean, zein naturala izan zen kazetari gisa polizia-lokarrien artean ekitea, espaloietako odol-arrastoak, bat-bateko absentziaren metafora gisa iraulitako aterkiak, tanatorioak, hiletak, sirenak, autobabeserako ikastaroak, manifestazioak eta kontramanifestazioak, euria eta malkoak, negar asko.

Argazkiak adierazkorrak dira egunerokotasunagatik, erosketa-poltsengatik, ikasleen motxilengatik, erretiratuen aire distraituagatik, bulegarien presa trajedunagatik. Haur-gurditxo bat ateratzen da, baita patata-pakete bat ere. Inork ez du negar egiten argazki horietan, baina, ertzainen aurpegi-estalkirik gabe ere, Udalbatzako kideen aire nahigabeturik gabe, erraza da zerbait gertatzen dela ikustea. Bilboko

erdigunetik puntako orduan igarotzen diren herritarrak mehatxu iraunkorrera ohitu direla, nik egin nuen bezala. Baina ez dute etsi. Keinu serioa, beso gurutzatuak, gogaitasuna, amorrua. Betekada soziala, zeinari esker, hamarkada bat baino gutxiago geroago, kloratita, bederatzi milimetro parabellumak eta UZI subfusilak, halakoak erabili zituztenen epaiketen kronikak baino ez zituzten betetzen.





# Antonio Basagoiti

## RECUERDO

Recuerdo perfectamente ese día, aunque haya pasado tanto tiempo. En mi memoria está grabado el 4 de marzo de 2002 por varios motivos relacionados con la gravedad del atentado frustrado, lo que se solía vivir aquellos días y por cómo paralizaron la ciudad más importante del País Vasco.

La foto me lleva a esos años en los que uno vivía en el permanente sobresalto, en los que los antiguos móviles sonaban demasiadas veces para dar malas noticias y en los que uno iba al Ayuntamiento de Bilbao con un nudo en la garganta todas las mañanas. Y lo que escribo en estas breves líneas lo hago desde el reconocimiento a todas las víctimas de ETA y desde mi interés en no ser adalid de nada porque puedo estar aquí para contarlo.

La imagen del alcalde abrazando al presidente de la Bolsa frente al concejal Portero y a mí con cara de circunstancias es reveladora. La verdad es que en ese momento estábamos todos desencajados porque ya sabíamos que ETA podía haber perpetrado una masacre en Bilbao. En concreto, en mi cabeza rondaba un sentimiento de alivio por la fortuna y por la rápida actuación de la Ertzaintza, porque los asesinos no habían conseguido su objetivo, pero también una sensación de temor porque habían mostrado que buscaban una matanza en una zona poblada de una ciudad y, sobre todo, que lo podrían volver a intentar, un salto macabro más.

Para mí en la foto Iñaki Azkuna está bien representado como un alcalde que nunca titubeó ante ETA, por eso tampoco le querían nada los que pusieron la bomba material o intelectualmente, que se solidariza con el presidente de la Bolsa que querían volar. También es significativo que la oposición, representada por el concejal de mi grupo y yo mismo en un mandato en el que teníamos casi tanta representación municipal como el PNV, estuviéramos cerca y juntos en ese momento. Hay momentos y existen valores que tienen que estar por encima de la discrepancia y la diferencia política entre demócratas.





# Antonio Basagoiti

## OROITZAPENA

Oso ondo gogoratzen dut egun hura, hainbeste denbora igaro bada ere. Nire memorian 2002ko martxoaren 4a grabatuta dago, atentatu zapuztuaren larritasunarekin zerikusia duten hainbat arrazoirengatik, egun haietan bizi ohi zenagatik eta Euskal Herriko hiririk garrantzitsuena geldiarazteko moduagatik.

Argazkiak urte horietara narama: etengabeko asalduran bizi ginen, lehengo mugikorrek gehiegitan jotzen zuten albiste txarrak emateko, eta goizero Bilboko udaletxera joaten nintzen, korapilo bat eztarrian. Eta lerro labur hauetan idazten dudana ETaren biktima guztiei egindako aitortzatik eta ezeren gidari izateko asmorik gabe egiten dut, hemen egon naitekeelako kontatzeko.

Irudia esanguratsua da: alkatea Burtsako presidentea besarkatzen ari da Portero zinegotziaren eta nire aurrean, egoerak baldintzatutako aurpegierarekin. Egia esan, une hartan denok geunden lur jota, bagenekielako ETak sarraskia egin zezakeela Bilbon. Zehazki, nire buruan lasaitasun sentimendu bat zegoen, zoriagatik eta Ertzaintzaren esku-hartze azkarragatik, hiltzaileek ez zutelako helburua lortu, baina baita beldur sentsazioa ere, hiri bateko eremu populatu batean sarraskia bilatzen ari zirela erakutsi zutelako, eta, batez ere, berriro saia zitezkeelako, jauzi makabro bat gehiago.

Argazkian, Iñaki Azkuna ondo irudikatuta dago ETaren aurrean inoiz zalantzarik izan ez zuen alkate gisa, horregatik ere ez zuten batere maite bonba materialki edo intelektualki jarri zutenek, Burtsako presidenteari elkartasuna adierazten. Esanguratsua da, halaber, oposizioa, nire taldeko zinegotziak eta nik neuk ordezkaturik, ia-ia EAJk bezainbesteko udal ordezkari gisa genuen agintaldian, gertu eta elkarrekin egotea une horretan. Demokraten arteko desadostasun eta ezberdintasun politikoaren gainetik egon behar duten une eta balio jakin batzuk daude.





# César Coca

## FOTOGRAFIAR

Martes. Bilbao. Llamada. Bolsa. Aviso. Comunicación. Ertzaintza. Alerta. Parqué. Desalojo. Cotizaciones. Prohibición. Sorpresa. Incredulidad. Confusión. Tensión. Huida. Espera. Carreras. Agentes. Miedo. Desaliento. Silencio. Parálisis. Temor. Rabia. Injusticia. Incomprensión. Lucha. Capitalismo. Empresas. Accionistas. Dinero. Imagen. Impacto. Objetivo. Trabajadores. Violencia. Herramienta. Socialización. Amenaza. Frío. Miradas. Comentarios. Persecución. Sirenas. Coches. Uniformes. Perros. Servicios. Bomba. Caldera. Desconfianza. Estudiantes. Enfado. Conmoción. Ira. Interrupción. Desactivadores. Sillita. Miradas. Cuchicheos. Complicidad. Hartazgo. Calles. Invierno. Abrigos. Compras. Gestiones. Paralización. Autobús. Temor. Aburrimiento. Insensatez. Cómplices. Estrategia. Ansiedad. Culpa. Justificación. Asfalto. Peatones. Indiferencia. Rictus. Sueños. Congoja. Curiosidad. Quiosco. Publicidad. Contraste. Terrorismo.

Contención. Relojes. Tiempo. Almacén. Suspiros. Llanto. Teléfonos. Explicaciones. Suspensión. Desgarro. Expectación. Chismes. Oscuridad. Chillida. Ruido. Semáforos. Metro. Instrucciones. Desplazamientos. Negación. Rechazo. Paseantes. Experiencia. Frustración. Confianza. Aceptación. Sombras. Jubilados.

Rumores. Alivio. Salida. Fortuna. Sonrisas. Relajamiento. Reapertura. Saludos. Solidaridad. Apelación. Continuar. Resistir. Superación. Regreso. Carreras. Trabajo. Resignación. Volver. Desafío. Explicar. Analizar. Entender. Narrar. Fotografiar.

# César Coca

## ARGAZKIAK ATERA

Asteartea. Bilbo. Deia. Poltsa. Jakinarazpena. Komunikazioa. Ertzaintza. Alerta. Parketa. Hustea. Kotizazioak. Debekua. Ezustekoa. Sinesgaiztasuna. Nahasmena. Tentsioa. Ihesa. Itxaronaldia. Lasterketak. Agenteak. Beldurra. Etsipena. Isiltasuna. Paralisia. Beldurra. Amorrua. Bidegabekeria. Ulertezintasuna. Borroka. Kapitalismoa. Enpresak. Akziodunak. Dirua. Irudia. Inpaktua. Jomuga. Langileak. Indarkeria. Tresna. Sozializazioa. Mehatxua. Hotza. Begiradak. Iruzkinak. Jazarpena. Sirenak. Autoak. Uniformeak. Txakurrak. Zerbitzuak. Bonba. Galdara. Mesfidantza. Ikasleak. Haserrea. Astinaldia. Sumindura. Etetea. Desaktibatzaileak. Aulkitxoa. Begiradak. Txutxu-mutxuak. Konplizitatea. Betekada. Kaleak. Negua. Berokiak. Erosketak. Kudeaketak. Gelditzea. Autobusa. Beldurra. Asperdura. Zentzugabekeria. Konplizeak. Estrategia. Antsietatea. Errua. Justifikazioa. Asfaltoa. Oinezkoak. Axolagabekeria. Rictusa. Ametsak. Larridura. Jakin-mina. Kioskoa. Publizitatea. Kontrastea. Terrorismoa.

Eustea. Erlojuak. Denbora. Biltegia. Hasperenak. Lantua. Telefonoak. Azalpenak. Etetea. Urradura. Ikusmina. Esamesak. Iluntasuna. Chillida. Zarata. Semaforoak. Metroa. Jarraibideak. Joan-etorriak. Ukapena. Errefusa. Ibiltariak. Esperientzia. Frustrazioa. Konfiantza. Onarpena. Itzalak. Erretiratuak.

Zurrumuruak. Lasaitua. Irteera. Halabeharra. Irribarreak. Erlaxazioa. Berrito irekitzea. Agurrak. Elkartasuna. Apelazioa. Jarraitu. Eutsi. Gainditzea. Itzulera. Lasterketak. Lana. Etsipena. Itzuli. Erronka. Azaldu. Aztertu. Ulertu. Kontatu. Argazkiak atera.



# Fernando Iturribarría

Corresponsal en París de *El Correo* y del *Grupo Vocento*, 1989-2019

## LA CONEXIÓN FRANCESA

Un documento descubierto en Francia fue la pista que condujo a los ejecutores de la amenaza. “Bolsa de Bilbao, 20 kg., reforzante, K. Olaia, las conexiones estaban mal hechas”, se reconocía en el texto. Fue encontrado a finales de 2002 en el refugio en Tarbes de Ibon Fernández Iradi ‘Susper’, entonces jefe militar de ETA.

Buena parte de los archivos allí confiscados provenían de Jon Olarra y Ainhoa Mujika, que codirigían los comandos armados en la fecha del atentado fallido, 4 de marzo de 2002. Aunque en septiembre fueron detenidos en Girona a bordo de un coche robado, su cuartel general no fue localizado hasta dos meses después en Bergerac con tiempo suficiente para vaciarlo y hacer la mudanza por el suroeste francés.

La nota sirvió para condenar en Madrid a diez años por estragos terroristas en grado de tentativa a Asier Arzalluz e Idoia Mendizabal. Ambos, exactivistas del ‘comando Olaia’, habían sido arrestados por separado en el centro de Francia en 2002 y 2005, respectivamente. La Audiencia Nacional resaltó que su finalidad había sido “causar alarma y temor en la población” y que la bomba “representaba un peligro manifiesto para la vida de las personas”.

El artillugio estaba cebado con una veintena de kilos de cloratita. El reforzante consistía en cordón detonante y bolas de 35 gramos de dinamita marca Titadyn. Este explosivo procedía de un atraco perpetrado por ETA en un polvorín de Bretaña durante la tregua de 1999 con la colaboración de independentistas bretones.

Pero un fallo mecánico impidió la detonación de la carga. El temporizador T48 Omron y los cuatro detonadores industriales de 350 microsegundos de retardo no llegaron a activarse. Los peritos de la Ertzaintza concluyeron que no había funcionado correctamente el sistema de iniciación. La autocrítica etarra fue coincidente: “las conexiones estaban mal hechas”. La conexión francesa, también.

# Fernando Iturribarría

*El Correo eta Vocento Taldeko korrespontsala izan zen Parisen 1989tik 2019ra*

## BETEKADA

Frantzian aurkitutako dokumentu bati esker topatu zuten mehatxugileen aztarna. "Bilboko burtsa, 20 kg, indargarria, K. Olaia, konexioak gaizki eginda zeuden", aitortzen zen testuan. 2002. urtearen amaieran aurkitu zuten, orduan ETako buruzagi militarra zen Ibon Fernandez Iradi 'Susper' en Tarbeko aterpean.

Han konfiskatutako artxibo gehienak Jon Olarrarenak eta Ainhoa Mujikarenak ziren, eta komandoak elkarrekin zuzentzen zituzten huts egindako atentatuaren egunean, 2002ko martxoaren 4an. Irailean Girondan lapurtutako auto batean atxilotu bazituzten ere, bi hilabete geroago arte ez zuten haien kuartel nagusia aurkitu Bergeracen, hura husteko eta Frantziako hego-mendebaldean zehar mudantza egiteko denbora nahikoarekin.

Oharrari esker, hamar urteko zigorra ezarri zieten Madrilen Asier Arzalluz eta Idoia Mendizabali terrorismo-hondamenak egiten saiatzeagatik. Biak, 'Olaia komando'ko aktibista ohiak, Frantzia erdialdean banan-banan atxilotu zituzten, 2002an eta 2005ean, hurrenez hurren. Auzitegi Nazionalak nabarmendu zuenez, "biztanleen artean alarma eta beldurra eragitea" zuten helburutzat, eta bonba "ageriko arriskua zen pertsonen bizitzarentzat".

Tramankulua hogeit hamar kilo kloratitaz gizenduta zegoen. Indargarria kordoi detonatzailea eta Titadyn markako 35 gramoko dinamita bolak ziren. 1999ko su-etenean ETak Bretainiako bolborategi batean independentista bretoien laguntzarekin egindako lapurreta batetik zetorren lehergaia.

Baina akats mekaniko batek eragotzi zuen karga lehertzea. T48 Omron tenporizadorea eta 350 mikrosegundoko lau detonagailu industrialak ez ziren aktibatatu. Ertzaintzako perituek ondorioztatu zuten hastapen-sistemak ez zuela behar bezala funtzionatu. ETaren autokritika bat etorri zen: "konexioak gaizki eginda zeuden". Frantziako konexioa ere bai.









# José Luis Nocito

## LA AMENAZA

Son las 7,44 H. y amanece.

El periódico pronostica chubascos débiles ocasionales.

6 minutos más tarde, cuando se dirigen al colegio la hija y el nieto del ex secretario del sindicato UGT Nicolás Redondo Urbieto, encuentran en la escalera un paquete sospechoso.

Avisan al padre y al abuelo que aún duermen.

Es una olla a presión precintada que tiene en su interior una bombona de camping gas sin detonador.

Pretende provocar presión ambiental y miedo.

El 4 de marzo de 1678 nace Vivaldi.

A las 10,30 H. La DYA y el periódico Gara reciben una llamada comunicando la colocación de una bomba en el WC situado junto a los depósitos de gasóleo del edificio de la Bolsa de Bilbao.

Se acordona la zona impidiendo el paso, y se desalojan las estaciones de tren y metro, academias, bancos, empresas y comercios.

El 4 de marzo de 1923, el científico Albert Einstein es investido académico por Alfonso XIII.

La gente que no puede salir en los primeros momentos recibe la indicación de alejarse de puertas y ventanas.

En la calle, todos esperan resignados el cambio de planes impuesto.

El 4 de marzo de 1992 muere en Nueva York el director de fotografía Néstor Almendros.

El centro de la ciudad está paralizado temiendo que estalle.

Afortunadamente, el detonador no activa los 21 kilos de explosivo que contenía la bolsa.

Con la distancia de 21 años, ¿Qué fue? ¿Un error o un acierto del comando que la colocó?

Se siente inquietud y aburrimiento esperando que la Ertzaintza abra el cordón de seguridad.

Cuando después de dos horas y media el paisaje urbano recobra la actividad, la gente corre, se libera de la tensión intentando recuperar el tiempo perdido.

No hay muertos, heridos ni escombros. No pasa nada.

Todo está igual. Nada ha cambiado, salvo, quizás, 8 o 10 nuevos puestos de trabajo en seguridad que acaban de justificar su existencia.

La combinación premiada en el sorteo de la lotería primitiva es el 8, 18, 23, 28, 39 y 40.

Hoy 4 de marzo, a eso de las 9 de la noche, se entregan los premios de teatro y toros que organiza el Hotel Ercilla.

# José Luis Nocito

## MEHATXUA

7,44 ordu dira eta eguna argitzen ari da.

Egunkariak tarteka zaparrada txikiak botako dituela iragarri du.

6 minutu geroago, Nicolás Redondo Urbieta UGT sindikatuko idazkari ohiaren alaba eta biloba eskolara doazenean, pakete susmagarri bat aurkitu dute eskaileran.

Oraindik lo dauden aitari eta aitonari abisatzen diete.

Prezintatutako presio-eltze bat da, barruan detonagailurik gabeko gazezko kanpin-bonbona bat duena.

Giroan presioa eta beldurra eragin nahi ditu.

1678ko martxoaren 4an Vivaldi jaio zen.

10: 30ean DYAK eta Gara egunkariak dei bat jaso zuten, Bilboko Burtsaren eraikineko gasolio-biltegien ondoko komunean bonba bat jarri zutela jakinarazteko.

Zonaldea sokaz inguratu, handik pasatzea debekatu, eta tren eta metro geltokiak, akademiak, bankuak, enpresak eta dendak hustu zituzten.

1923ko martxoaren 4an, Albert Einstein zientzialaria akademiko izendatu zuen Alfontso XIII.ak.

Lehen uneetan irten ezin zuen jendeak ate eta leihoetatik urruntzeko agindua jaso zuen.

Kalean, denak etsita daude ezarritako plan aldaketaren zain.

1992ko martxoaren 4an Néstor Almendros argazki zuzendaria hil zen New Yorken.

Hiriaren erdigunea geldirik dago, leherketaren beldur.

Zorionez, detonagailuak ez ditu aktibatzen poltsako 21 kilo lehergai.

21 urteren ondoren, zer izan zen? Hura jarri zuen komandoaren akatsa ala asmatzea?

Kezka eta asperdura dira nagusi, Ertzaintzak segurtasun-hesia noiz irekiko zain.

Bi ordu eta erdiren ondoren hiriko paisaiak jarduera berreskuratzen duenean, jendea korrika doa, tentsiotik askatzen da galdutako denbora berreskuratu nahian.

Ez dago hildakorik, zauriturik edo hondakinik. Ez da ezer gertatu.

Dena berdin dago. Ez da ezer aldatu, salbu eta, agian, segurtasun-arloko 8 edo 10 lanpostu berrik beren izatea justifikatu berri dutela.

Loteria primitiboaren zozketan saritutako konbinazioa 8, 18, 23, 28, 39 eta 40 izan zen.

Gaur, martxoak 4, gaueko 9ak aldera, Ercilla Hotelak antolatzen dituen antzerki eta zezenketa sariak banatuko dira.





# Kirmen Uribe

## DEL SUFRIMIENTO DE LOS DEMÁS

Es fácil.

Me refiero a salir de uno mismo.

A dejar de ser el ombligo del mundo,  
por un momento.

Puede resultar hasta divertido,  
como ponerte un disfraz.

Mudar de piel y meterte en la del otro,  
y tratar de comprender su sufrimiento.

Cada persona es un mundo.

ha nacido en un lugar,  
una familia, un entorno.

Cada persona tiene su razón.

Somos diferentes,  
y menos mal.

No entiendo que se pueda empatizar

con toda clase de víctimas,  
menos con las del terrorismo.

Queremos cambiar el mundo,  
salvar el planeta, caminar hacia la igualdad,  
todo eso está muy bien.

Pero nos cuesta admitir que

matar, sencillamente,  
estuvo mal.

Una bomba y, de repente,  
la vida se detiene.

De eso se trataba, de infundir miedo.

¿Cambiar el mundo mediante el miedo?

No lo entiendo.

¿No sería mejor optar por el cariño?

El amor como motor de cambio,  
el respeto al diferente, a lo diverso.

Cariño hacia la gente

que lo pasó mal.

¿Lo intentamos?

Nunca es demasiado tarde.

# Kirmen Uribe

## BESTEEN SUFRIMENDUAZ

Erraza da.  
Esan nahi dut nor bere burutik aldentzea,  
munduko zilborra izateari uztea,  
une batez.  
Dibertigarria ere izan daiteke,  
mozorro bat janzteaz bezala.  
Bestearen larruan jarri,  
haren sufrimendua ulertzen saiatu.

Pertsona bakoitza mundu bat da.  
Toki jakin batean jaio,  
familia batean, inguru batean.  
Pertsona bakoitzak du bere arrazoia.  
Denok gara desberdinak,  
eta eskerrak.

Ulergaitza zait ikustea  
nola dugun enpatia biktima mota guztiekin,  
baina ez terrorismoaren biktimekin.  
Mundua aldatu nahi dugu,  
planeta salbatu, berdintasunen bidean aurrera egin.  
Hori dena oso ondo dago,  
baina kostatu egiten zaigu onartzea  
hiltzea bidegabea izan zela.

Bonba bat eta bat-batean  
bizitza geratu da.

Hori zen helburua, beldurra sortzea.  
Benetan alda al daiteke mundua beldurraren bitartez?  
Ez al da hobe maitasuna?  
Maitasuna aldaketa eragiteko,  
desberdina errespetatuz, askotariko gizartea.  
Maitasuna adierazi  
behin gaizki pasatu zuten horiei.

Ahaleginduko gara?  
Sekula ez da berandu.





CENTRO MEMORIAL DE LAS  
**VÍCTIMAS DEL TERRORISMO**  
**TERRORISMOAREN BIKTIMEN**  
OROIMENERAKO ZENTROA

**EL CORREO** 